



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

KULTUR ETA KIROL IHARDUERETAKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA ARAUTZAILEA

Kultur eta kirol ihardueretako subentzioak lortu ahal izateko eskaera eta emateen arauak ezartzen dituzten oinarriak.

1. Gaia.

Deialdi honen helburua irabazteko xederik gabeko Altzoko Kultur eta Kirol erakundeentzako diru laguntzak arautzea da, urteko programa edo ekintzak burutzeko.

2. Onuradunak.

Oinarri hauek erregulatzen dituzten subentzioak eskatu ahal izango dituzte, Altzon kirola eta kultura sustatzen duten talde altzotarrak.

3. Aurrekontua.

Altzoko Udalaren 2000ko aurrekontuan, 1 0000.481.300.00.00 partidan 200.000 pezeta jarri dira. Kopuru hau amaitzean ez da beste eskaerarik onartuko.

4. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

Laguntza hauek lortzeko aukera izan nahi dutenek honako agiri hauek zuzendu beharko dituzte Udaletxeko Kultur eta Kirol Batzordera.

- a) Behar bezala betetako subentzio eskaera instantzia, deialdi hau osatzen duten oinarriak onartzeko konpromezua barne hartuz, Udaletxe honetan eskura egongo dena.
- b) Kontu Korrontearen zenbakia, eskatzailearena dela ziurtatzen delarik.
- c) Proiektuen gastu eta sarreraren aurrekontua.
- d) Legeztatu gabeko taldea den kasuan, antolatzaileen arduradunen zerrenda aurkeztu beharko da.

Eskaerak aurkezteko epea irailaren 30ean amaituko da (urte hasieratik antolatutakoak sar daitezke); hala ere partidan diru erabilgarria baldin badago epez kanpo eginiko eskaerak ere aztertuko dira.

Eskatzaileak aurkeztutako agiriak, aurkeztu den proiektuari dagokionez, osatu gabea edo ez nahikoa dela egiaztatzen denean, 10 egunetako epea emango zaio berorri, hutsuneak konpontzeko, eta behin epea behar zen konponketarik egin gabe iraun ezker, artxibatu egingo da beste tramiterik gabe eta itzuli egingo zaizkio agiriak eskatzaileari.



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

5. Ebaluazioa eta ematea.

Eskaerak, Kultur Batzordeak ebaluatu eta aztertuko ditu eta azken erabakia Plenoak hartuko du.

Ebazpena baiezkoa denean bere zenbatekoa, ordaintzeko modua eta subentzioa jasotzen duten entitate edo taldeek bete behar dituen baldintzak konstaraziko dira.

Subentzioa eman eta zenbatekoa zehazteko honako alderdi hauek kontutan hartuko dira:

- a) Herriko kultur eta kirol dinamikaren pizgarriak izatea.
- b) Ekitaldi irekiak izatea.

6. Subentzioaren ordainketa.

Kopuru osoa aurtengo aurrekontuan 3. Oinarrian azaldu dena izango da (200.000). Aurkeztutako proiektu bakoitzaren aurrekontuaren %40a lagunduko da gehienez. Edozein kasutan proiektu bakoitzak ez ditu 100.000 pezeta baino gehiago jasoko. Aurkezten diren eskaera guztiei erantzuteko 200.000 pezeta daude aurrikusita, beraz, artikulua honetako aurreko puntuen arabera irteten diren emaitzak kopuru oso honetara moldatu beharko dira.

Erabakiarekin %75a ordainduko da eta memoria eta egiaztapenak aurkeztean gainontzeko %25a ordainduko da.

7. Hartzailearen obligazioak

Subentzioak jasotzen dituzten entitateak ondorengoak aurkeztera behartuta daude:

- Burututako iharduera edo programaren txosten xehetua.
- Gastu eta sarreren balantze orokorra, egiaztapenak ekarriz.

Guzti hau egiaztatzeko azken eguna 2001eko otsailaren azken eguna izango da.

8. Publizitatea.

Subentzioa jaso duen iharduerei buruz egiten den publizitate guztian agertarazi beharko da Alzoko Udalaren Lankidetzara.

9. Ez betetzea.

Oinarri hauetan edo subentzioaren ematean ezarritako obligazioetako edozein ez betetzeak, haren berrikusapena ekarriko du eta dagokionean, emandako zenbatekoaren baliogabetzea, gutxitzea edo itzulketa.

10. Interpretazioa.

Oinarri hauen interpretazioari buruz sor daitekeen edozein zalantza Udaletxeko Kultur eta Kirol Batzordeak erabakiko du.

Altzon, 2000ko martxoaren 31an



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

(Eskaera orria)

Kultur eta Kirol Ihardueretako subentzioak.

Entitate edo talde eskatzailea:.....
Helbidea.....
...
I.F.Z.....Telefonoa.....
.
Arduradunaren izena:.....
Helbidea:.....
N.A.N.....Telefonoa.....
Kontu Korrontearen zenbakia(20 digitu).....

Eskaera hau aurkezten duten taldeko kideek eta arduradunek , ziurtatzen dute:

- Goian aipatutako Kontu Korrontea goian aipatutako taldearena dela.
- Araudi honen eduki legeak bere azken eduki eta ondorioetaraino onartzen ditugula.

Altzon,

Taldearen arduradunaren sinadura

Taldearen zigilua (baldin badu)